

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Gure enpresak, bezeroekin harreman pertsonala eta automatizatua edukiko du; izan ere, gure mahaiak denda fisikoetan eta web orrian salduko ditugu.

Harreman pertsonala denda fisikoetan emango da. Gure produktua IKEA, Media Markt eta beste altzairu edo teknologia dendetan saltzea pentsatu dugu, eta dendetan ere zerbitzu teknikoko kide batzuk egotea pentsatu dugu; momentuko arazoak konpon ditzaten, dudak argitu ditzaten... Horrez gain, zerbitzu teknikoko kideak bezeroen etxeetara, lantokietara edo edonora doazenean, harreman pertsonala emango dute eta haien arazoak konpontzen saiatuko dira.

Harreman automatizatua web gunetik emango da; non gure produktua online salduko dugun. Hemen bezeroek gure mahai motak, erabilera, prezioa etab. ikusi ahal izango dute eta horrez gain, online lan egingo duten zerbitzu teknikoarekin kontaktuan jartzeko aukera egongo da.

Horrez gain, gure produktua salduko dugun dendekin eta ordenagailu markekin, fidelizazio klub bat sortuko dugu. Gure bezero zaharrenekin tratu berezi bat edukiko dugu; hau da, hauei katalogoak lehenago bidaliko dizkiegu eta zerbitzu teknikoan deskontuak ere egingo dizkiegu. Azkenik, garraio enprekin ere harremanetan jarri beharko gara mahiak leku batetik bestera transportatzeko eta hauekin ere fidelizazio klub bat egitea pentsatu dugu.